



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA):VII. liburukien aurkezpena

Adolfo Arejita
Bilbon, 2016-05-03

Gaur aurkezten dugun ale berri honekin 7genera heldu gara, Euskaltzaindiak aspalditik eskuartean darabiltzan egitasmoetan “trongalekoa” dugun batekin, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* izenez edo EHHA laburduraz ezagutua.

“Trongala” edo “tronkala” zuzenbide-hitza darabilt, Euskal Akademia, R. M^a Azkue buru zela, gudu aurrean hasi zelako gaurko egitasmo mardularen aitzin-urratsak ematen, eta 80gn hamarkadaren lehen urteetan birsortu zen gaur egungo Atlas Linguistikoaren egitasmoa, metodologia eta parametro berriekin, Europan barrena aurretik egin ziren edo egiten ari ziren dialektologia ikerkuntzen harian.

Lehengo mendearen azken hamarkadetan bildu eta sailkaturiko materiala plazaratzeko prozesuan ari gara. Egitasmo osoa beteko duen hamabikoaren bigarren partean sartuak gara. Bide erdia, ihazko otsailean Gasteizen aurkeztu genuen 6garrenarekin bete genuen. Bigarren erdiaren lehen alea dugu zazpigarren hau.

Zazpi zenbaki sinboliko horietakoa dugu, nolabait aniztasuna, ugaritasuna, oparotasuna adieraz dezakeena. Hala nahi genuke izan dadin.

Este séptimo volumen del Atlas, dentro de las características comunes de los anteriores, aporta una serie de mejoras respecto a los anteriores. Los materiales elaborados que presenta, han sido minuciosamente revisados y preparados para la publicación; una publicación ciertamente compleja, que recoge, en una hoja, todas las respuestas obtenidas para cada concepto en cada localidad donde se hizo la encuesta, y en otra la plasmación visual en un mapa coloreado de las respuestas obtenidas, con la leyenda interpretativa correspondiente. En este sentido, se ha procurado enriquecer al máximo el contenido de esa leyenda que acompaña a los maños, con observaciones de carácter etnográfico, lexicográfico, semántico, etnotextos sugerentes, e incluso gráficos que ilustran el concepto al que se refiere.

7garren liburuki honen edukiaz ez dut berri gehiegi erantsiko. Hasieratik finkatu zen inkesta nagusi hartako edukien parte bat jasotzen da, mendez mende euskara egin den gure gizartean, 80-90garren hamarkadetan euskaraz bizi izan diren eta gure berriemaile izan direnek jaulkitako altxorra jasoten duena. Gure gizarte tradizionalaren bizimodu zabalaren partetxo bat jasotzen du. Etxea, etxe-barrua, etxe ingurua, sukaldeko tresneria, uraren fenomenoak, nekazaritza lanabesak, gurdia, idi-uztarria eta, orohar, gaur egun, mundu hori ezagutu ez duenak haien erreferentzia ere galdu samar duen mundu bitxia islatzen du liburuki honek.

Kontzeptu kultural eta lexikalekin batera, euskararen gramatikari dagozkion zenbait kategoria ere aztergai ditu liburuki honek: izen, izenordain, zenbatzaile, galdetzaile, zehaztugabe eta graduatzaileak, besteak beste.

Concluiré mi intervención, recordando que este tomo, como el proyecto del Atlas en general, es fruto de labor en equipo, labor paciente, consciente y coordinada. Se trata de un proyecto de investigación a largo, una carrera de fondo. Y si ha sido viable, dentro de su magnitud, es por la apuesta decidida de quienes nos precedieron en la Academia y el apoyo continuado de nuestras administraciones públicas a Euskaltzaindia.

Eskerrik asko.